



GOIZUETAKO UDALA

**MIRIAM AROZENA SAN MIGUEL**  
**Goizuetako Udalako Ordezko Idazkaria**

**NEUK ZIURTATUA:** Goizuetako Udalbatzak, 2017ko azaroaren 28an, egindako bilkuran, besteen artean, erabaki hau hartu zuen

**4.6.-SAIOA TABERNA ETXEBERRIA. Herriko parkea berritzeko eta komon publikoak jartzeko eskaera.**

Saioa Taberna Etxeberria, herriko haurren gurasoen izenean, (sinadura zerrenda eransten du), Goizuetako Udalera zuzendu da, herriko plazako parkea eta bereziki lurzorua egoea txarrean eta arriskutsuan dagoela adieraziz. Hortaz, parkea berritzea eta lurzorua aldatzea, umeentzat trankulu gehiago jartzea, komon publiko bat jartzea eta publikoki erantzuna ematea eskatu du.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, eskatzaileari jakinarazi nahi dio, eskaera jaso aurretik, urriaren 6an, Udala Goizuetako "Xalto Ikastetxeko" zuzendaritzakin bildu zela eta bilera honetan udalak proposatu diola, umeekin herriko bi parkeak (eskolatak eta plazakoa) berritzeko hezkuntza proiektua; proiektu honen helburua izanik, eskolak proiektuaren diseinua udalean aurkeztea, gero udalak aurrera eramateko ahal duen neurrian.

Azaroaren 23an egindako beste bilera batean, konfiratu dio Goizuetako Eskolak udalari, prest dagoela proiektua aurrera eramateko.

Guzti hau kontutan izanik, udalbatzak aho batez erabaki du, 2018 urteko udal aurrekontuetan, 17.000€tako gastu partida bat aurreikustea, proposatuko den proiektua gauzatzeko. Aldi berean, ikusita herritarrek parkea berritzeko duten interesa, auzolan deialdi bat egingo balu udalak, parte hartzea eskatuko zaie.

Komon publikoei dagokionean erabaki da aho batez, kontutan izango dela eskaera

Azkenik, akordioaren publikotasunari dagokionean, aho batez erabaki da, erabakiaren berri albiste moduan udaleko web orrian argitaratuko dela.

Akordio honen aurka, nahi baldin bada, hauetako 3 errekurtsoren bat ezarri daiteke:

A) Berraztertze Errekurtsoa, hilabeteko epean, egintza administratiboa emandako organu berdinen aurrean, notifikazioa egiten den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

B) Errekurtsio Kontentzioso-Administratiboa jarri daiteke Nafarroako izaera administratiboko Epaitegietan, notifikazioa egiten den hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.



**GOIZUETAKO UDALA**

C) edo aldez aurretik, nahi baldin bada, "Altzadako helegitea" Nafarroako Auzitegi Administratiboan, notifikazio egunetik hilabeteko epean.

Honela jasota gera dadin eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut Alkate Jaunak ontzat emanik, Goizuetan 2017ko abenduaren 18an

**ALKATEA**  
Izpta.: Unai Loiarde Ansa



**IDAZKARIA**  
Izpta.: Miriam Arozena San Miguel

